



EBAZPENA, 2011ko azaroaren 25ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena. Haren bidez, Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE SA enpresari emakumezkoen eta gizonezkoen aukera berdintasunerako lankidetzaren izaera onartu zaio.

Azaroaren 8ko 424/1994ko Dekretuaren bidez, emakumezkoen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako lankidetzaren erakundearen figura sortu zen honako xede hauekin: batetik, gizarte- eta lan-esparruan aukera-berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak bultzatzea; bestetik, aipatutako esparruetan hainbat entitateari egindako lana aitortzea.

Hortaz, Eduardo José Portero Delgado jaunak, Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE SA enpresaren izenean aurkeztutako eskaria aztertuta, eta enpresan emakumezkoen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako politika bat garatzeko Entitateak sinatutako dokumentuaren balorazioa eginda,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE SA enpresak erakundearen emakumezko eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako politika bat garatzeko sinatutako konpromiso-dokumentua oinarri hartuta, enpresari emakumezkoen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako lankidetzaren izaera aitortzea Euskal Autonomia Erkidegoan dituen zentroetarako, azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuak -emakumezkoen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako lankidetzaren erakundearen figura sortu zuen- ezarritako irizpide eta baldintzen arabera.


Bigarrena.- Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE SA enpresak aitorkuntza erabili ahal izango du egoki ikusten dituen irudi-osagai guztietan, aitorkuntzak indarrean dirauen bitartean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, eta haren aurka Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hileko epean, Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.- Ebazpen honek, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko azaroaren 25ean.



MARÍA SILVESTRE CABRERA
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

